BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

65

EBAZPENA, 2011ko abenduaren 19koa, Kultura, Gazteria eta Kiroleko sailburuordearena, euskarazko literatura-argitalpenetarako laguntzen berri ematen duena.

AURREKARIAK

1.– 2011ko maiatzaren 31n argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2011ko maiatzaren 18ko Agindua, Kultura sailburuarena, euskarazko literatura-argitalpenetarako laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiten duena.

2.– 2011ko maiatzaren 18ko Aginduaren 12.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, jendeak jakin dezan, emandako diru-laguntzen zerrenda osoa, onuradunak, kopuruak eta laguntzen xedea zehaztuta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Horiek horrela,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Kultura sailburuaren 2011ko maiatzaren 18ko Aginduaren babesean, 2011ko euskarazko literatura edizio-planak garatzeko emandako diru-laguntza guztiak eta horien onuradunak argitara ematea. Datu horiek eranskinean daude jasota.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 19a.

Kultura, Gazteria eta Kiroleko sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

	Dirulaguntza (euroak)
Aizkorri argitaletxea S.L.	14.439
Alberdania S.L.	34.440
Arrain editoriala S.L.	23.390
Artezblai S.L.	3.981
Banaka media S.L.	5.328
Berriotxoa Alberdi Joseba Andoni	10.008
Ediciones Beta III Milenio S.L.	4.895
Ediciones Mensajero S.A.U.	34.416
Editorial Desclee de Brouwer S.A.	13.489
Editorial Erein S.A.	49.175
Editorial Ibaizabal Edelvives S.A.	27.145
Editorial Sauré S.L.	5.018
Elkarlanean S.L.	73.806
Estrata liburuak S.L.	9.330
Euskal Gaiak Abarka S.L.	3.111
Hiria liburuak S.L.	30.591
Hualde Alfaro Luis Enrique	4.985
Igela argitaletxea S.L.	11.065
Lanku bertso zerbitzuak S.L.	5.986
Meettok S.L.	6.222
Pamiela editorial S.L.	21.057
Ttarttalo S.L.	19.648
Txalaparta argitaletxea S.L.L.	16.475
Guztira	428.000